

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 221. zkia. 2014ko martxoa



**Ermuko kirolak  
badu etorkizunik**



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**Eneritz Aranburu,  
Zaida Fernández,  
Asier Ibaibarriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Alicia Lorenzo,  
Pello Mugarza  
eta Valentin Mugarza.**ARGAZKIAK:**Anaitasuna Ikastola,  
Eneritz Aranburu,  
Artarrai Mendi Taldea,  
Irantzu Barrondo,  
Leire Elustondo, Ermuko  
Merkatarari eta Ostalarien  
Elkartea, Zaida Fernández,  
Lolo García, Estibalitz  
González, Jesus González,  
Raúl González,  
Asier Ibaibarriaga,  
Pello Mugarza, Valentin  
Mugarza eta Dorleta Vidal.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.400 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

*...Fede Iturriagagoitiak batuta*

## BUZTANGORRI ILUNA Colirrojo tizón *Phoenicurus ochrurus*



Luma beltz-beltzez jantzita, ematen du badakiela bere buztan gorriak desberdintzen duela, huraxe etengabe astindu eta astindu egoten da-eta. Kantuan egiteko ahal denik eta goien jartzen da, teilatu hegal edo arbola puntaren batean aukeran. Hegada motzeko txoria, zuhaitz batetik bestera joango da, lar arriskatu barik, alanbrez alanbre eta erromaden tinkoiez tinkoi hegaldatzen den moduan. Bere esparruaren defendatzaile amorratua, abestu ere berori akotatze asmoz abesten omen du eta eremu horretan, espezie bereko txoriak ere onartzeko errezeloa erakusten du. Gutxi, banaka batzuk ikusten dira, pasean doazenean-edo; niri ere *txokantea* egiten zait ikustea. Jateko, proteinak eta hidratoak: intsektuak, armiarmak, ehunzangoak... eta hauek guztiak ondo irensteko, basoko fruituak.

## Hilabete honetan...

**MUNDUKO AHOTSAK**....4

Irina Badea (Errumania)

**ELKARRIZKETA** .....5-7

David Gómez, EMOEko presidente ohia

**MALLABIAN ZER?** .....8-9

Luken Aranburu Austrian

**ERMUAN ZER?** .....10-11Zuhaitz Gurrutxaga aurkezlea,  
Berbetan Jardunaldietan**MOTZEAN**.....12-15

300 lagun IV. Zuhaitz Egunean

**BOTEPRONTOAN** .....16

Patxi Goitandia

**KIROLZALE** .....17

Infantilak Euskadiko kros txapelketan

**IRITZIA** .....18

"Udaberria... eta ni ile hauekin!"

**SALEROSKETAK** .....19

Saldu, erosi edo agurtu

**ANTZINAKOAK**.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

**KALEKO INKESTA** .....21

Aparatzeko txandakako sistema

**AGENDA** .....22

Apirileko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Irina Badea

Errumaniako Tîrgoviste hirikoa da Irina. Duela 10 urte, 39 zituenean, autobusa hartu eta Euskal Herrira etorri zen: Eibarrera, hasieran; Ermura, 3 urte beranduago. Eskubaloiko jokalaria profesional ohia da eta Gorputz Hezkuntzan lizentziatua. Lau urte daramatza euskara ikasten.

## - Nolako zen zure bizitza Tîrgovisten?

Eskubaloian jokatu nuen 32 urte izan nituenera arte eta ondo bizi izan naiz beti, Ceaucescuren agintaldian ere. Iraultza eta gero, baina, gauzak aldatu egin ziren. Leku guztietan daude arazoak, baina hemengoak baino larriagoak ziren Errumaniakoak.

## - Horregatik etorri zinen?

Hilabete gutxi batzuk geratzeko asmoa nuen. Nire helburua zen, hemen irabazitako diruarekin, Errumaniako etxea goitik behera zaharberritzea. Irakasle-lanpostu finkoa nuen eta eszedentzia eskatu nuen hona etortzeko.

## - Eta zer dela-eta erabaki zenuen hemen geratzea?

Maitemindu nintzelako, ezkondu eta alaba izan nuelako. Nire senarra Malikoa da eta Sara, nire alabatxoa, hemen jaio zen duela 6 urte. Orain, nire familia hemen dago.

## - Non ezagutu zenuen senarra?

Autoeskolan, eta bi urte geroago Ermuko alkateak ezkondu gintuen.

## - Nolako harrera egin zizuten hemen?



Ona, oso ona. Errumanian jendea barnerakoiagoa da.

## - Erraz moldatu zinen hemengo ohituretara?

Bai, asko bidaiatu dudalako eskubaloiarri esker. Janariarekin ere ez dut arazorik izan, hango janariak egiten ditudalako hemen. Adibidez, *sarmale* deritzan errezeta egiten dut batzuetan, txerri-haragi xehatuaz, arrozaz, tipulaz eta azaz prestatzen dena.

## - Kirol horrekin zerikusia zuen zer-baitetan lan egitera etorri zinen?

Ez, Eibarko andre bat zaintzera etorri nintzen. Ingelesa eta frantsesa banekizkien, baina hitzik ez gaztelaniaz. Helduen Hezkuntza Eskolan izena eman eta hizkuntza ikastera dedikatu nintzen: urte t'erdian gidabaimena ateratu nuen! Hobe orduan ekin izan banio euskarari ere!

## - Zergatik ikasten duzu euskara?

Batetik, alabak D ereduari ikasten duelako; bestalde, nire ikasketak homologatzeko prozesuan nagoelako.

## - Hizkuntzetarako dohaina duzu?

Errumaniarraren eta euskararen gramatikak zerikusia duten arren, euskara ikastea kostatzen ari zait. Lehen baino gogo eta denbora gutxiago daukat. Hala ere, nire etxean euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, errumanieraz eta bambaraz hitz egiten da!

## - Errumaniara bueltatzen zara?

Bai. Noizean behin Errumaniara edo Malira joaten gara baina, batez ere Malira bidaiatzeko, dirua behar da. Aste Santuan, senarra, alaba eta hirurok Errumaniara joango gara, kotxez. Horrela, bidean dauden herrialdeak ezagutzeko aukera izango dugu.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



David Gómez, Ermuko Merkatariei eta Ostalariiei Elkarte presidentea ohia:

## **“Gaur egun Ermuan badago non erosi, denetik eta prezio onean”**

102 dende eta taberneak osatzen dute Ermuko Merkatariei eta Ostalariiei Elkarte (EMOE), eta zuzendaritza-batzordea gaztetzeko apustua egin zuten 2012ko urtarrilean. Borondatezko karguak dira eta David Gómezek bere burua eskaini zuen, lana zertan zetzan jakin gabe. Presidente izendatu zuten eta, bi urte zeregin horietan eman eta gero, buruz aipa ditzake karguaren betebeharrak: herrian antola daitezkeen ekimenak bilatu, edo asmatu, eta haiek errealitate bihurtu; proposamenak egin; aurrekontuak eskatu; beste elkarte, talde eta Udalarekin batzartu... Aitortzen du esperientzia positiboa izan dela, denbora asko eskatu dion arren.

**- Nola baloratuko zenuke bi urte hauetan egindako lana?**

Positiboa izan da eta asko ikasi dut. Uste dut merkatarri guztiok bizi beharreko esperientzia dela.

**- Buruhauste handiak eman dizkizu karguak?**

Bai, dezente. Espero nuen baino lan eta buruko min gehiago eman dizkit. Merkatarri guztiak ez dira pozik geratzen zuk egindakoarekin, antolatzen ditugun ekintza guztiak ez dizkietelako guztiari onurak ekartzen. Baina ezin dugu milagrorik egin: merkatarri bakoitzaren esku dago salmentetan eragitea.

**- Presidente berria duzue jada, Eneritz Ibarzabal. Zein aholku emango zenioke?**

Bazkideekin pazientzia izatea, bere erabakiak ez dirrelako guztien gustukoak izango.

**- Zein egoeratan dago herriko merkataritza?**

Gaizki, oso gaizki. Zergak etengabe igotzen dizkigute —bai Udalak bai Gobernuak ere—. Merkataritza-gune handiek kaltetu egiten gaituzte: gero eta eskaintza handiagoak dituzte, diru gehiago gastatzen dute publizitatean... El Corte Ingles-ek ere min handia egin digu, arropa-dendei batez ere.

**- Zer egin dezakete instituzioek, bezeroek eta mer-**

**katariek egungo egoera hobetzeko?**

Erakunde publikoek babes handiagoa eskaini beharko liekete saltoki txikiei (merkataritza-gune handiak horrenbeste zaindu barik). Bezereok, bestalde, gudan konfiantza izan beharko lukete: katalogoaren bitartez behar duten guztia lor dezakegu; saltoki handiek, berriz, ez dute ezer ekartzen katalogo bidez. Merkatarriok, azkenik, pazientzia eta malgutasuna erakutsi beharko genuke, erraztasunak eman...

**- Nolakoa da Ermuko bezeroa?**

Denetik dago, baina ezin gara kexatu! Gehienak oso jatorrak dira eta denda txikiak garela ulertzen dute: badakite ezin dugula dendan denetik izan, eta katalogoaren bitartez, nahi dutena eros dezaketela.

**- Erosteko ohiturak aldatzen dira adinarekin?**

Bai, batez ere 40 edo 45 urtetik gorako bezeroak ditugu herriko dendetan. Gazteagoek, aldiz, gauza puntualak bakarrik erosten dituzte: merkataritza-gune handietara joaten dira maiz, eguna pasatzera, eta bertan erosketak egiteko aprobeztatzen dute.

**- Zu ere gaztea zara. Zein ohitura duzu?**

Onartu behar dut ni ere Bilbora joaten nintzela; orain, baina, ikusi dut oso



zaila dela negozio bat aurrera ateratzea. Jada ez naiz saltoki handietara joaten, jakina, eta familia, lagunak eta inguruko guztiak kontzientzitzen saiatzen naiz: ez diet esaten Bilbora ez joateko, baizik eta, joan aurretik, herriko dendetan begiratzeko.

**- Ermuarrak, orokorrean, kontzientziatuta daude?**

Bai, iruditzen zait saltoki txikien garrantziaz jabetzen hasi direla. Dendak ixten doaz eta Ermua lohiri bihur daiteke. Orduan, edozein gauzatxo erosteko, beste herri batera joan beharko gara, nahi eta nahi ez. Bestalde, herrian erosiz gero, dendariok lanpostuak sor ginitzakeen, laguntzaileak beharko ginitzkeelako. Azkenaldian, hainbat dendatako saltzaileak kaleratu dituzte edo jarduna murriztu diete, lan falta dela-eta.

**- Zeintzuk dira denda txikiak eskaintzen dituzten abantailak?**

Gertutasuna, aholkuak ematen ditugula, esperientzia... Gainera, gasolinan aurreztu daiteke. Denda handiek saltzen dituzten produktu askoren osagarriak edo ordezkoiak ezin dira beste inon aurkitu. Beraz, erositako produktuarekin arazoak izanez gero, gasolina —hau da, dirua— eta denbora eman behar dute bezeroek saltoki horietara berriro joateko. Jendea hasi da horretaz konturatzen.

**- Denda eta taberna dezente itxi dira herrian azkenaldian, ezta?**

Bai eta merkatariontzako kaltegarria da. Berdin dio itxi duena gure kompetentzia den edo ez: bezeroari aukeratzeko posibilitatea eman behar zaio. Nik zer-

**“Ermua lohiri bihur daiteke, baina saltoki txikien garrantziaz jabetzen hasi dira ermuarrak”**






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

bait ez badaukat, konpetentziara jo dezake bezeroak. Herrian denda gutxi badaude..., aukerak murriztu egiten dira. Gaur egun, Ermuan badago non erosi, denetik eta prezio onean, Bilbora joan barik.

- **Salneurriak antzerakoak dira han eta hemen?**

Marka askok produktuen prezioak finkatzen dituzte, beraz... Hala ere, saltoki handien prezioak apur bat merkeagoak izan daitezke, ale kopuru handiak erosten dituztelako.

- **Ukaezina da saltoki handiak zuen aurkariak direla. Internet bidez erosi ahal izateak ere eragina izan du zuen salmentetan?**

Bai, gaur-gaurkoz Internet dugu etsai nagusia. Oso eroso da online erostea, erosketa konpulsiboa da, etxe-

tik egin daitekeena... Negozioak aro berrietara egokitu beharko genituzke.

- **Denda asko itxi diren arren, negozio berriak ere zabaltzen ari dira, ezta?**

Bai, merkatu plazatik irten direnak!

- **Ausarta izan behar da negozioa martxan ipintzeko?**

Ausarta izan behar da, bai; baina batez ere itzelezko premia izan behar da. Ez dira garai onak eta gainera traba asko ipintzen dizkigute: obrak egin, alokairuen prezioa, elbarrituei egokitu-tako komunak ipini...

- **Zer diozu merkatu plaza-ri buruz?**

Lotsagarria da Ermuko Udalak horren aldeko apusturik ez egitea. Entzun dudanez, aurtengo abenduan itxiko da merkatua eta segu-

## "Gaur-gaurkoz Internet dugu etsai nagusia"

ruenik... etxebizitzak erakiko dituzte. 17.000 biztanle dituen herri batek merkatu plazarik ez izatea penagarria da.

- **Zer nolako harremana du EMOEk Udalarekin?**

Harremana dugu: ez ona, ez txarra.

- **Denda guztiak elkarteko kide izatea komenigarria litzateke?**

Bai, indar handiagoa izango genukeelako, Udalaren zein bankuen aurrean, besteak beste.

- **Elkarteko kideak dira herriko denda eta taberna gehienak?**

Ez, herriko denden herena eta tabernen zortzirena, gutxi gora behera.

- **Hamar bat taberna bakarrik daude elkartean. Gutxi dira, ezta?**

Bai, eta gero eta gutxiago daude. Beste esparru bat dagokie tabernei eta, nire ustez, beste elkarte bat sortu beharko lukete, inguruko herrietan egiten duten moduan. Horrela, diru-laguntzak jasotzeko aukera izango lukete, aisialdiari lotuta dauden heinean.

- **EMOeko kidea izateko, ordaindu behar da?**

Bai, hiru hilean behin 78 euroko kuota dugu. Gainera, 120 eta 30 euro ordaindu behar ditugu urtean: Ermua Txartela izateagatik eta publizitateagatik, hurrenez hurren. Horrez gain, antolatzen ditugun ekintzengatik ere zerbait ordaindu behar da. Gehiago izango bagina, gutxiago ordaindu beharko genuke.

- **Diru-ekarpenek izutzen dituzte kide berriak?**

Baietz esango nuke. Gainera, guk antolatzen ditugun zenbait ekintzez aprobetxa daitezke bazkide ez direnak ere: "Gaua Zabalik"en, esaterako, edozeinek zabal dezake denda gauean, elkarteko kide izan edo ez. Beraz, zertarako ordaindu!

- **Horrelako azpijokoak saihestu daitezke?**

Horretan gabilta. Gainera, argi eta telefono enprekin negoziatzen ari gara, eskaintza bereziak lortzeko asmoz. Abantailak lortuta, bazkide berriak erakar gitezake.

Dorleta Vidal



**AMAIA HARATEGIA**



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**SEHIGA**

PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

**NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**




San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Artisau-pizzak · Etxeko razio eta postreak



**ZUTIK PIZZERIA**

**Etxera eramango dizugu!**

**943 17 67 74** 

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Luken Aranburu, ikaslea:

# “Dantzie eta eMePebo5t-en kontzertuek botateittun faltan”

Austrian dabil gure gaztie, irailan 5a ezker, karrera amaierako proiektue eitten. Elkarrizketatxo bat eitteko eskatu eustien eta aurrez aurre egoteko aukerarik ez (bai, ez dot ipini Skype eta webcam-ik internet bidez berakin berba eitteko, *mea culpa...*) eta hain modan dauen Whatsapp bidez *berba* ein dot Lukenekin, nere nebarekin.

Jeloooooooouuuu, hi, watsapa dauketelaaa ueeeee 

Han han han, bazan ordue!! Hona etorri nitzenetik ez dogu ixte berbaik ein...

**Bueno ba eztau oin atxekixaik. Zelan habil ba Austria aldien?**

Ondo, ondo, Linz politxe da, Danubio pasetan da bertatik eta trankile da, Austria erdixen dau gainera, biatzeko edartotox. Vienara, Budapestera, Pragara, Munichera, Salzburgora, Bratislavara, eta Italiara juteko be errez



Hemen Hallstatt-en Valentziako neskekin

**Jooooeee!! Txatxarto habil gero!! Atzera aurreran gehixa habil proiektue eitxen baino eztoz??**

Ba bai, hilebete golferixan eta inguruen bueltaka pasau eta gero, urrixen proiektue eitxen hasi nitzen

**Juergan eta... aprobetxau ointxe!! Jejeje. Eta zeri buruz dok ba proiektuoi?**

Fluido sistemetan uhin akustikuen hedapenan modelizaziñue ta simulaziñue eitten nabil elementu finituak erabilixte.

**EtXuat ezebe aittu!** 

Nik egoera diferentiek planteatu eta zer pasatzen dan aztertzen dot, ondorixuekin txosten bat idazteko. Hori izengo da proiektue. Lenengo semestrien trankil ibili naz baina oin ia gogor ekitsen, ezta denpora askoik gatzen etaaa...

**Aaaaahhh!! Edarto edarto...Eta alemana zer??** 

Bai, banabil alemanaz, baina hemen gauzezenok inglesezt eitten dogu gehixenbat

**Euskaldunik badaukezu kuadrilan ala?**

Bai, ondarrut bat donostiar bat eta neu ibiltten gara gehixenbat, eta gero ba... finlandes bat, eskozes bat, mejikanue, valenziano bat be geuz ibiltzen da, ta urtarrila arte beste 4 valenziana be baeuezan.

**Dezenteko kuadrilie orduen...**

Eta bilbotar bi be bai. Eta danekuek, finlandesak, hungaruek, rusuek, suekuek, ukrainiano zoro bat be bai (hau be geuz ibiltzen da), moldava bat (hau be geuz ibiltzen da), txekuek, Kroaziako tipo bat be geuz ibiltzen da, australianuek, austriakomat be bai... danetik azkenien.

**Ez zarie galduko ez, juergistok!! Lagunek be izen die hor ezta??**

Ander bixek eta Jon ander etorri zien urtarrilan azkenetan eta aste betien ez ginen gatu. Salzburgon, Vienan, Txekiako lago baten da Hallstatt-en... Eta klaro, egune juergan... Olalden urtegun be orduntxe suertau zan. Ondo pasau gendun.



**Bizikletia kandaaaaaaaaaaaaa jajajaja Hor be taldian**

**aztarnie izten, EMEPEBOST!! jajaja** 

**Hainbeste juerga eta biaje eta, botatok hemengoik ezer faltan edo...**

Familixie faltan botaten da bai... Aman jatekue (hau tipikue da, baina egixe da bai!), neure ohie... eta DANTZIE! Gainera erakusten be hasi naz!! Jajaja, ondarrutarak esautzen dantzan ikestie nahi ebala eta batai eta bestiai esaten hasi zan eta azkenien kuadrillatuxe jantau ginen! 3 bider ein dogu hemen residentzian dauen dantza gela baten. Emepebo5t-en kontzertuek be faltan botateittuz...



**Ah bai? Hori hori!!**

**Jejeje, emepebo5t monue... jeje. Gure txixixek be osaba ikusteko desietan daz ba...**




Ba ni be bai eh! Txixixek faltan botaten die, ia noz ipintxozen webcam kristuoi!! Eurekin internetez berba ein eta arpeixek ikusteko sikeran!!

**Bai, bai...**  **Bueltan noz hator ba?**

Aste Santuko bigarren astien

**Ah, edarto ba, etxien txapuz batzuk eitxen lagundukostek orduen...**

Jajaja, ikusikau...

**Alaaaa, mosu bat, aguuuuur**   

Bai, emon danei mosu bana, aguuur



Eneritz Aranburu



- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es

MALLABIKO  
Herriko  
taberna



Eguneko platera (3€)  
menua bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

943 174 952  
(asteartetan itxita)



## FLAMENKO IKUSKIZUNE ETA BERTSO AFARIXE

Mallabiko Izar Gorri Kultur elkartiek hile bukaerarako bi ekintza antolatu dauz: Batetik, martxoak 28, barikuen gabeko 23:00etan Lidia Lorenzo dantzari X *Tablas* izeneko flamenko ikuskizunien ikusteko aukerie egongo da. Berakin batera Curro Bermejo gitarrajolie, Juanjo Navas abeslarixe eta Maria Martinez / Zuriñe Balmaseda arittuko die txaluek joz. Bestetik, martxoan 29xen gabeko 22:00etan, bertso afarixe eingo da Izar Gorri elkartien. Bertan Ane Labaka, Unai Iturriaga eta Agin Laburu arituko die bertsoan, Beñat Ugartetxearen gaixei aurre eginez. Bertso afarireko izena, Herriko Tabernan emon biher da.

## BIZKAIKO ASTO PROBA TXAPELKETA

Apirilak 6xen Bizkaiko Asto Probak Txapelketa jokatuko da Mallabia I. Kirol Etxien. Goizez eta arratsalde izengo da. Eguerdiko 12:30etan, Egia eta Xatxibar lehiatuko die, eta arratsaldeko 18:00etan Alegriak, Iker Legarretak, Maiorak eta Ugaldek jokatuko dabe. Sarixek 450 euro irabazliantzat, eta azkenantzat 250 euro bittartekuek izengo die.

## AUTOBUS ZERBITZUA HOBETZEKO PROZESUE

Igez hasi zan martxan Gipuzkoako autobus zerbitzue hobetzeko prozesue. 56 herritten iritzixe jaso ostien teknikariek aurreproiektue ein eben. Oin, Gipuzkoako Aldundiek barriro be herritarren iritzixe jakin nahi dau proposatuteko zerbitzu barrixe egokixe dan jakittek. Hori dala eta, martxo eta apirila bitartien batzar ezberdinek eingo die proiektuan barri emon eta iritzi ezberdinek jasotzeko. Mallabitarrentzako batzarra Eibarren eingo da apirilak 1ien arratsaldeko 18:30ean, Portalean. Informazio gehixa edo parte hartzeko aukerie [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net) webgurien dekozue.

## BIHARKO IZARRAK

Otsailan 27xaz geroztik martxan da Biharko Izarrak pelota txapelketa. Oin arte sei partiduko jokatu die. Otsailan 27ko lehenengo partiduen Urbieta-Urruzola 22 eta 21 gailendu jakezen Urretabizkaia-Lasari. Bigarren partiduen, Arrieta-Etxamendi 22, Lopez-Iturriaga 16 izen zan emaitza. Martxoan 1ien jokatu zien hurrengo bi partiduek. Honetan lehenenguen Dorronsoro-Imazek 22 eta 7 irabazi eutsen Labaka-Apeztegiari. Bigarren partidue Santxo-Arratibel 22, Ugalde-Lasa 7 amaittu zan. Martxoan 6xen jokatu zien bi partiduen emaitzak honakuek izen zien: Urretabizkaia-Urruzola 22, Etxebarria-Aizpuru 13; eta bigarren partiduen Altuna-Aizpitarte 22, Lopez-Etxamendi 10. Martxoan 8xen Agirre-Aspuruk 22 eta 20 irabazi eutsen Arrieta-Bolinagari; bigarrenien Urbieta-Arratibel 22, Larrañaga-Ibarrondo 11 izen zan emaitza. Martxoan 13en, Etxebarria-Galarza izen zien garaile Ugalde-Arratibelen kontra, 22-13ko emaitzakin. Eta egun honetako bigarren partiduen Iribarria-Irustak irabazi eutsen 22-15 Arteaga-Imazi. Jokatu dan azken partiduetako emaitzak honakuek izen zien: lehenenguen Aguirre-Etxamendi 22, Dorronsoro-Aspuru 16; bigarrenien, Santxo-Bolinagak irabazi eben 22 eta 19 Elordi-Urruzolan aurka.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

Iberikoetan  
espezialistak

*Mayte*

Denda  
berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412



Montis DQ  
Mouth



DANAONA  
IZOZTUAK ETA  
AURREKOZINATUAK



GOIENKALE Z/G  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598



Descubrete



Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

- Teak, kafeak eta ezta.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

**Oparitzeko  
neurria  
egindako otzarak!**

**Zuhaitz Gurrutxaga, aurkezlea:**

# “Telebistak ate berriak ireki dizkit”

**33 urte ditu eta elgoibartarra da. Futbolari ohia, Donostiako Realean eta beste makina bat futbol taldetan ere aritua. Azkenaldian aurpegi ezaguna bihurtu zaigu, ETB1en Txumatxak eta Hizkamizka saioretako aurkezle bezala. Apirilaren 9an, “Berbetan” jardunaldietan izango da Ermuan eta Gatibu taldeko Alex Sardui elkarrizketatuko du.**

**- Futbolari ohi bezala ezagutu zaitugu askok. Ze harreman duzu futbolarekin?**

Argi daukat futbolarik asko eman didala, baina gaur egun ez dut oso hurbiletik bizi. Nagieria handia ematen dit adibidez, futbolariak entrenatzen ikuste hutsak. Akaso bere garaian urte askotan horretan murgildu nintzelako. Lagunak mantentzen ditut eta badakit edozertarako hor daudela, baina pixkanaka bakoitzak bere bidea egiten du.

**- Futbol munduan euskara asko entzuten da azkenaldian...**

Hizkuntzaren kontzientzia berandu samar piztu zait egia esan. Futbolearen ari zarenean, burbuila batean murgilduta zaude eta ez zara jabetzen zenbat jarraitzaile dituzun eta zenbat umerentzat zaren eredu. Adibidez, duela gutxi, Realeko entrenatzailea den Jagoba Arrasateri, Manchester-en partidua jokatu ostean lehenengo galderak euskaraz entzuteak, barrenak mugiarazi zizkidan.

**- Futbolaz gain antzerkia eta musika ere landu dituzu.**

Futbolak aisialdirako tartea beti laga izan dit. 20 urterekin gitarra jotzen hasi, eta kantuak sortzeko gai nin-

tzela ikusita, 28 urterekin VanPopel musika taldea sortu nuen. Kontzertuetan, abesti bakoitzaren aurretik sarrera bat egiten nuen eta orduan konturatu nintzen kontakizunetarako banuela halako dohain bat. Handik gutxira *Confidencias de un futbolista* sortu nuen. Futbolaren munduan bizi izandako pasadizoei buruzko bakarlan bat.

**- Eta telebistarako jautzia nola izan zen?**

Teledonosti telebista karterako Realari buruzko erreportaje bat egiteko deitu zidaten. Gero, Orio Produzioak ekoiztetxetik *Tumatxak* saioko aurkezle lanetan hasi nintzen eta, hortik aurrera, apurka-apurka, nire bidea egiten joan naiz.



**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**J. LUCAS**

**PINTURA EN GENERAL**

630 22 51 36

**ZUZENBIDE KONTUAK**

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
Tel: 846080080  
Mugikorra: 688885435  
zuzenbidekontuak@gmail.com

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

**OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA**

*Marfil*

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12



**- Tumaxak saioak oso kritika onak izan ditu...**

Oso pozik nago bizi izandako esperientziarekin eta lortutako emaitzekin. Musikari asko ezagutu ditut, herriz herri ibili naiz... Eta gainera saioak oso kritika onak izan ditu! Aipatu nahi nuke produkzio mailan eta gidoi lanetan egin den lan handia. Telebistak ate berriak ireki dizkit.

**- Hizkamizka saioarekin ari zara orain...**

Tumaxak saioan nengoela Hizkamizka aurkezteko casting batera aurkeztu eta ni aukeratu ninduten. Pozik ari naiz. Tumaxak saioarekin

alderatuz, beste gauza bat da. Bat-batekotasun handiagoa eskatzen du eta saioko protagonistak parte-hartzaileak dira.

**- Ermura zatorz apirilaren 9an...**

Aspaldi egona naiz Ermuan, baina nik beti Donostia aldera gehiago jo izan dut Bilbo aldera baino, eta egia esan, ez dakit baina badago Eibartik haratago, halako tarte bat... Ermua askotan igaro dut eta gogoran dut Areitiotik barrena, Ermurantz dagoen aldapa. Santixauetan ere maiz izana naiz juerga giroan. Gogotsu joango naiz.

**- Alex Sardui elkarrizketatuko duzu...**

Hurbiletik jarraitu dut Alex, Gatibu eta Exkixu garaietatik. Esango nuke oholtzaren gainean aitzindaria izan dela bere mugimendu eta dantzekin. Oholtza betetzeko daukan gaitasuna nabarmenduko nuke.

**- Aurrera begirako zein asmo duzu?**

Momentuz Hizkamizkarekin segituko dugu denboraldia amaierara arte eta akaso, datorren urtean zerbait izan nezake. Datorrenari aurre egiteko presu nago.

Asier Ibaibarriaga

**Euskararen gaineko gogoetak**  
Sobre el conocimiento y uso del euskera

Zuhaitz Gurrutxaga  
Hizkamizka



Alex Sardui  
Gatibu



Apirilaren 9an, asteazkena  
Lobianon  
19:00etan



berbetan

**Udako kanpamentua ingelesez**

Giro ona eta segurua, lagunen arteko integrazioa eta elkar-aditzea sustatzen duten hezkuntza helburuekin.

8 eta 15 urte bitarteko umeei zuzenduta, ENGLISH FUN kanpamentuak esperientzia paregabeak dira. Naturarekin bat eginez, elkarbizitza, kanpoko jarduerak, kirola, tailerrak eta jolasak uztartzen dituzte, ingelesa irakasteaz gain.



**Formigal Summer Camp 2014**



**36. EUSKAL JAIA  
OSPATUKO DA  
APIRILEAN**

Txindurri Dantza Taldeak 36. Euskal Jaia antolatuko du apirilaren 12 eta 13an. 12an, larunbata, plaza-dantza egongo da Txertubi taldearekin, 19:00etan. 13an, berriz, hainbat ekitaldi burutuko dira: 10:00etatik 10:30era, inguruko herrietatik datozen taldeei harrera egingo zaie San Pelaion eta, 11:00ak bitartean, hamaiketako egingo dute. 12:30ak arte kalejira herriko kaleetan barrena eta 12:30etatik 14:00etara, dantza-erakustaldia plazan. Amaitzeko, umeen alardea egingo da 17:00etan.

**“Emakumeen aztarnak...” ikerketa aurkeztuko da**

“Emakumeen aztarnak, aztarna feministak: gure borrokaren oroimena” jardunaldiak egingo dira Lobianon apirilaren 12an, larunbata. Ermuko Emakumeen Asanbladako kideek antolatuta, 10:30ean ekingo zaio egitarauari, Luz Maceiraren hitzaldiarekin: “Subversiones y memorias feministas”. Jarraian, Zaida Fernándezek egindako ikerketa aurkeztuko da —“Emakumeen aztarnak, aztarna feministak”— eta horren protagonistak diren emakumeen esperientziak ezagutzera emango dira.



14:00etan amaituko dira jardunaldiak, brindis batekin. Ekintza horien bitartez, “borroka feministek gure kaleetan utzitako oroimena berreskuratu nahi izan dugu —diote antolatzailerak—, gaurko eta etorkizuneko belaunaldiek aintzat hartzeko emakumeek Ermuko herriaren bilakaeran izandako partaidetza”. Beste alde batetik, abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazio nazionala egingo da apirilaren 5ean Iruñan. Bertara joateko, Emakumeen Asanbladako autobusak ipiniko ditu Ermutik eta apirilaren 2a baino lehen erosi beharko dira tiketak: Emakumeen Topalekuan, Infreñu edo Txalaparta tabernetan.

**Betiondo arku taldeak bi domina lortu ditu  
Euskadiko Txapelketan**

Ermuko Betiondo arku taldeak bi domina bi lortu ditu Euskadiko IV. Txapelketan, arku tradizional eta gailu teknikorik gabeko arkuaren kategorian. Taldeko presidentea den Basilio Izquierdok urrezko domina eskuratu du bigarren urtez jarraian eta Euskadiko Txapelari eustea lortu du. Bere taldekide José María Muñozek, aldiz, brontzekoa lortu du hirugarren sailkatu eta gero. José Maria Muñoz Bizkaiko txapelduna da gaur egun.

**Anaitasuna Ikastolako ikasleek eskiatzera irteera egin dute**

*Berriemaileak: Anaitasuna Ikastolako 6. mailako ikasleak.*

6. mailako eta 5. mailako ikasleak 2014ko otsailaren 13 eta 14an eskiatzera joan ginen Somportera. Ermuan, autobus geltokian 06:00etan autobusa hartu genuen. Autobusean, argazkiak atera, pelikulak ikusi, abestu... hainbat gauza egin genituen.



Ikastolako ikasle batzuk Somporten

11:00etan ailegatu ginen eta hara heldu bezain laster eskiak eta bas-toiak alokatu eta gure monitorea ezagutu genituen. Dena prest genuela, eskiatzeko ordua heldu zen. Somporteko pistak oso handiak, onak eta oso politak dira eta paisaia ederrak ikusi genituen.

Eskiatzen oso ondo pasatu genuen, batez ere mutil eta nesken arteko elur piloten guda egin genuenean.

Egunari amaiera emateko aterpetxe batera joan ginen lo egitera. Logelak asko gustatu zitzaizkigun eta oheak oso erosoak ziren. Oso ondo pasatu genuen logeletan eta lagun berriak egiten, baina ez genuen lo askorik egin.

Otsailaren 14an etxera bueltatzeko ordua heldu zen. Oso triste geunden baina, elurrean ibili eta lagunekin gozatu eta gero, oroitzen onekin heldu ginen Ermura.

**Udal Euskaltegia**

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**Caperos**

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**MUGA**

**KILOGRAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA



Oier Zubiria Ariznabarreta mallabiarra  
Industria Elektronikako Ingeniaritza  
graduako 3. maila ikastean ari da  
MONDRAGON UNIBERTSITATEAn:

## “Proiektu garaia gustatzen zait gehien”

*- Zergatik aukeratu zenuen elektronikako industrialeko ingeniari-ritza?, Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?*

Mekanikako Ingeniaritza etorri zitzaidan lehenik burura, beti gustatu izan baitzait mekanikaren mundua, baina elektronikako ere beste aukera bat bezala ikusten nuen, hau ere oso erakargarria egiten baitzitzaidan. Etorkizunari erreparatuz, ikusten nuen makina eta gailu gehienak, guztiak ez esatearren, elektronikaz zerikusia zutela. Hau izan zen Elektronikako Ingeniaritza aukeratzeko arrazoi bat. Orduan, MU-ko ate irekira joan nintzen Elektronikako Gradu instalazioak ikustera. Bertan, aurreko urteetako proiektuak, egin beharko genituen praktikak etab ikustean, argi neukan bertan ikastea nahi nuela. Proiektu haiek gehiegi erakarri ninduten.

**“MUn ikastea esperientzia aberasgarria izaten ari da; talde lana asko bultzatzen da eta proiektu eta praktiketan oso gustura ari naiz”**



*- Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi handia ematen al zaio?*

Gustatzen zait, ikasgai gehienetan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izaten dugu. Lehenik teoria eman eta gero teoria hori praktikan jarri. Zerbait ikasteko metodologia egokiena dela uste dut. Sei hileko bakoitzean, proiektu bat garatu behar izaten dugu eta bertan, sei hileko guztian zehar ikasitako teoria gehiena praktikan jarri behar izaten da eta asko ikasten da praktika horren ondorioz.

*- Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?*

Esperientzia aberasgarria izaten ari da, talde lana asko bultzatzen da, proiektuak egiten ditugu eta praktikaren aldetik gauza asko muntatu behar izaten ditugu eta oso gustura ari naiz.

*- MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?*

Proiektu garaia gustatzen zait gehien. Talde txiki bat helburu baten aurrean, arazo bat konpontzeko produktu bat sortu beharra. Lan asko egin behar izaten da, egunean ordu asko sartu behar izaten dira proiektua behar den bezala irteteko, baina asko gustatzen zait. Nik ordutegia aldatuko nuke, arratsaldeko klaseak kendu eta urte osoa goizez ematea klaseak. Bizitza guztia klaseak goizez edukita, arratsaldeko jardunaldia ez zait gehiegi gustatzen.

*- Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?*

Lanean hasteko gogo handia dut, baina gaur egungo egoera ikusita oso zail dago. Lanik ezean, potentzia elektronikako master bat egitea gustatuko litzaidake.

## BERA BERA ESKUBALOI TALDEAK KOPA IRABAZI DU

Donostiakoa izan arren, bi ermuar aritzen dira Bera Bera eskubaloi taldean, eta ez edonolakoak: Matxalen Ziarsolo, kapitaina, eta Imanol Álvarez, entrenatzailea. Denboraldi bikaina egiten ari da taldea eta, horri esker, Koparen XXXV. edizioa irabazi berri du Alcobendasen, finalean Rocasa Ace Gran Canaria 21-26 gaindituz.

## EUSKARAZKO EKINTZEN GIDA KALERATU DU EUSKARA SAILAK

Ermuan euskaraz garatuko diren ekintzen urteko agenda argitaratu du Euskara Sailak. Urte amaierara arte egingo diren ekintzen berri ematen da agenda horretan, hala nola Berbalaguneko tailer guztiak, Liburu eta disko azoka, Euskal Jaia, "Berbetan" jardunaldiak, Ermuan kantuan, Laburbira... Poltsikoan sartzeko moduko agenda horren bitartez, herritarrek data horiek kontuan hartu eta ekitaldi horietan parte hartzera animatu nahi da. Banaketa ohiko lekuetan egingo da.

## 300 lagunetik gora bildu ziren IV. Zuhaitz Egunean

Artarraí Mendi taldeak IV. Zuhaitz Eguna antolatu zuen martxoaren 9an. 300 lagun baino gehiago bildu zen Joxion-Sallabente auzoaren gainean, 230 zuhaitz inguru landatzeko helburuarekin. Batez ere pagoak eta haritzak eraman zituzten, baina intxaurrondo, gereziendo, hurriz, gorosti eta urki batzuk ere landatzeko aukera izan zuten. Adin guztietako mendizaleek eta naturazaleek parte hartu zuten ekimen honetan eta horren bitartez zuhaitzek gizadiarentzat duten garrantzia nabarmendu nahi izan du Artarraik. "Gainera, natura-guneak babesteko beharraz herritarrak (umeak batez ere) kontzientziatu nahi ditugu -diote arduradunek-. Kontuan izan behar dugu basoek gure planetan duten eragina, besteak beste: CO2-aren isurketa aurka, negutegi efektuaren eraginean, basamortutze-prozesuan, bioaniztasunari eustean eta ur eta airearen kalitatearen kontrolean, besteak beste".



## 1.600 euro jaso ziren moxal pintxoei esker

'Elkartzen gaitu' mugimenduak 160 moxal kilo erre zituen plazan martxoaren 15ean. 750 pintxo saldu zituzten (hau da, zituzten guztiak) eta horiei esker eta 'zero hilarari' esker, 1.592,50 euro bildu zituzten. 18:20etan hasi zen pintxo banaketa baina ia 12 ordu lehenago ekin zioten animalia erretzeari, 7:00ak inguruan. 40 laguntzailek parte hartu zuten ekimenean, gehienak Merkatarari eta Ostalarien Elkarteko kideak, nahiz eta tartean antolatzaileen lauzpabost lagun eta Lobiano Gastronomía Elkarteko kideak ere egon ziren. Jai-giro ederra sortu zenez, afaltzeko bildu ziren kolaboratzaile guztiak hurrengo astean. Ekimen horrekin jasotako diru guztia Udaleko Gizarte Zerbitzura eramango da, beharren arabera kudeatzeko. Ekainaren 14an, paella solidarioa antolatuko dute berriro ere, eta egun berean, pintxo eta bakailao lehiaketa eta "Gaua Zabalik" ekimenak ere burutuko dira.





**Igeltserotza - Iturgintza**

*Errekalde*

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com

**ONAINDIA  
HARATEGIA**

Etxean egindako  
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1      Tel. 943 10 85 44  
48260 - ERMUA      Mug. 678 64 85 41

*Pub Dakota*



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

mari  
asun



LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

## Sirimiri tabernak irabazi du Kazuelatxoan III. lehiaketa



Raúl Gonzálezek sortutako *Mendirako eguna* kazuelatxoak irabazi du kazuelatxoan aurtengo lehiaketa: untxia eta barraskiloak saltsan, kristalezko pote baten barruan nahastatuta. “Publikoari begira, errezeta ausarta da, baina zaporeekin asmatu genuen eta epaimahaiari gustatu egin zitzaion”, dio Raúlek. Horri esker, diploma bat eta 150 euro jaso ditu. Horrez gain, GourmeTapa txapelketan hartu zuen parte tabernariak, hau da, Gourmetentzako Tapen Espainiako txapelketan. 150 sukaldari aritu ziren bertan, 25 finalean, eta 5. postuan sailkatu zen ermuarra. Finala Madrilan burutu zen eta, 35 minutuko epean, 20 pintxo egin behar izan zituen (14 publikoarentzat, 5 epaimahaiarentzat eta 1 komunikabideentzat). “Txerri-hankak prestatu nituen, urdaiazpikoan batuta, eta saltsa eta gaztarekin. Egia esan, oso lasai aritu nintzen —onartzen du Raulek—. Oso esperientzia ona izan da,

gure inguruan ohikoak ez diren gauzak ikasteko aukera eskaini didalako”. Lehiaketa honi esker, beste diploma bat eta 120 euro irabazi ditu. Bestalde, TVE1eko *Master Chef* saioko castingetara aurkeztu da aurten eta azken fasean kanporatu dute; orain, ETB2ko *Sukaldari* saioko hautaketa prozesuan dihardu. Ermuko pintxo lehiaketan aurkeztuko duen pintxo prest dauka dagoeneko —ekainean burutuko da— eta Bizkaikoan ere izena emateko asmoa du. “Sukaldaritzan tradizionalari eustea da nire erronka —dio Raulek—. Berritasunei ere tartea egingo diet, baina ez dut nahi sukaldaritzan tradizionala galtea”.


## DQ Berria tabernak irabazi du inauterietako lehiaketa



Déjate Querer Berriak irabazi zuen EMOEko inauterietako dekorazio lehiaketa. Sormena, berrikuntza, aurkezpena eta giropena baloratu zituen epaimahaiak eta futbol-giroan oinarritutako dekorazioari esker eskuratu zuen saria tabernak. Torrekua tabernak, berriz, accesit berezia irabazi du, sorginen eta edabeen munduko dekorazioa gurera ekartzeagatik.

## URAREN FAKTURA BERRIAK KEXA UGARI SORRARAZI DITU ERMUAN

2014ko urtarrilean aldatu du Ermuko Udalak ura fakturatzeko modua. Horren webgunean horrela irakur zitekeen: “2014tik aurrera ermuarrok, batetik, kuota finkoa ordainduko dugu eta, bestetik, kuota aldagarria: benetan kontsumitu dugunagatik”. Jakinaren gainean egon arren, urteko lehen fakturak herritar asko asaldatu ditu eta Auarbe eta Abiapuntuko bulegoetara jo dute askok euren kexak azaltzera. *El Correo* egunkariaren arabera, EAJ alderdiak azalpenak eskatu dizkio Udalari: “Fakturatan egondako igoera ikaragarriengatik eta Auarbe enpresako bulegoetan herritarrek jaso duten tratuegatik” eta “egoera hau argitzeko ikerketa martxan ipintzea” eskatu diete. Bestalde, uraren kudeaketa berriaren kontrako sinadura bilketari ekin dio Ermua Opina taldeak, change.org webgunearen bitartez. Eta protesta egiteko ekintzak proposatu ditu. Azkenik, AltErmuatiba taldeak kexa eredu eskegi du Ermua Opinaren Facebookean: nahi dutenek, inprimatu eta Abiapuntura eramanez dezanen.



### TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURITASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)



## URRETA

**burdindenda**

- \* Etxea
- \* Giltzak
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Brikolajea
- \* Kit altzariak
- \* Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

## Proba-Leku

*Neopaindegia - Estetika*



Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42



## PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

# PATXI GOITANDIA

- *Zer egiten zenuen gaztaroan?*

Pilotan, palan, futbolean eta krosean aritzen nintzen.

- *Ikasketarik?*

14 urterekin Gijongo Unibertsitate Laboralean metalaren doikuntzaren gaineko formazio profesionala jaso nuen.

- *Lanean noiz hasi zinen?*

17 urterekin, ikasketak bukatu eta berehala.

- *Zenbat urte daroazu kotizatzen?*

41 urte. Azkeneko 24 urteak IXA Lanen eman ditut.

- *Zein ordutan hasten zara beharrean?*

Astelehenetik ostegunera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 6:00ak arte. Ostiralean aldiz, goizeko 7:00etatik eguerdiko 13:30ak arte.

- *Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna? Eta gutxien?*

Lan aldakorra egiten dudala, eta gutxien urte larregi daramadala bertan.


- *Hobbyren bat?*

Musika. 40 urterekin hasi nintzen Musika Eskolan solfeo ikasten, eta tronboi irristailudunak erakarri ninduen. Gerora, Irulitxa sortu genuen.

- *Zer ematen dizu Irulitxa fanfarreak?*

Asko disfrutatzen dut bertan. Herrian, Eibarren, Ampueron (Kantabria), Miranda de Ebron, edo Donostiako danborradan jo izan dugu, besteak beste.

- *Izen ona duzue atzerrian ere...*



**Sortzez Jose Miguel Goitandia Lasarte, ezizenez "Patxi". 58 urte ditu. Bost anai - arreba dira, bi neska eta hiru mutil. Erdikoa da bera. Maria Angelesekin dago ezkondua eta 23 urteko semea dute, Mikel.**

Batez ere Frantzian. Condom-eko kaleko banden lehiaketa europarrean lehengo saria jaso genuen 2011n. laz brontzea irabazi genuen, eta *Fanfarre Irulitxa* guk konposatutakoa kreaaziorik onena izan zen.

- *Zein emanaldik hunkitu zaitu gehien?*

Donostiako Santo Tomas Lizeo ikastolaren 50. urteurrenean jotzeko kontratatu gintuztenean. 40 musikari eskatzen zituzten eta gu 20 besterik ez ginenez, beste txarangetako musikariek lagundu gintuzten.

- *Musika estilo bat ...*

Oso gogoko ditut rancherak!

- *Bidaia bat?*

Laredora.

- *Zein txoko bisitatu dituzu?*

Kuba, AEB, Txekiar Errepublikak...

- *Mendi bat?*

Aizkorri.

- *Biziorik?*

Ahalik eta hobekien bizitzea!

- *Kolore bat...*

Zurigorria.

- *Athletic...*

Liga honetan 4. postuan geratuko da.

- *Txanponaren bi aldeak ezagutu dituzu.*

Kirolaria, eta Ikastolako jubenilen entrenadore, kros entrenatzaile, pilotako zuzendaritzako kidea izan naiz.

- *Oroitzapen bat...*

14 urterekin etxea utzi eta Gijonera joatean. Batu ginen lagunok bazkaria egiten dugu urtero.

- *Eguneko unerik gozoena...*

Koadrilarekin poteatzean.

- *Jateko gogokorik?*

Garbantzuak, babak, porruak...

- *Zerk kentzen dizu loa?*

Gauzak espero bezala iriteten ez direnean.

- *Nola definituko zenuke zure burua?*

Positiboa naiz, botila beteta ikusten dut beti.

- *Zer falta da Eremuan?*

Saihesbidea egitea, eta gazteen ekarpenak entzutea eta aintzat hartzea.

- *Berriz jaioko bazina?*

Ez nuke jakingo bestelakorik egiten (barre artean).

- *Zer miresten duzu pertsona batengan?*

Laguntasuna.

- *Bizitzak zer irakatsi dizu?*

Bizitza bera eskola dela.

- *Bizitzako egunik zoriontsuena?*

Mikel jaiotzean, oinordekoa utzi nahi nuelako munduan.

- *Akatsik baduzu?*

Jendeaz gehiegi fidatzen naizela.

- *Zein albiste irakurri nahiko zenuke?*

Krisia bukatu dela, ez da goela langabeziarik.

Leire Elustondo



**CITROËN  
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



**SAGARDUI  
poltsak**

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



**ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA**

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



# Ermuko infantilek hirugarren postua eskuratu dute Euskadiko kros txapelketan

Amaia García, Gladia Afonso, Iraia Bengoetxea eta Maider Mochales ermuarrak ezin hobeto dabilta krolean: hirugarren postuan geratu dira Laudion burutu den Euskadiko eskola-kros txapelketan. Bertan jardun ahal izateko, beste 4 probatan egin behar izan dute korrika aurretik; horiei esker, Bizkaiko txapelkunordeak ere izan dira.

**2**000. urtean jaiotakoak dira laurak eta talde indartsua osatzen dute, lesionatuta egon diren Olatz Yarza eta Ane Garridorekin batera. Triano, Usansolo, Muskiz eta Ermuan burututako Bizkaiko txapelketetan puntuak lortu zituzten gazte horiek eta, horri esker, gogotsu heldu ziren Euskadiko neurketara.

Euskal Herri osoko 59 gaztek hartu zuten parte lasterketa horretan eta hauek dira ermuarrek lortutako emaitzak: Amaia García, 17. postua (12.51); Iraia Bengoetxea, 23. postua (13.17); Maider Mochales, 24. postuan (13.18) eta Gladia Afonso 47. postua (14.15). Guztien markei esker, 3. geratu ziren sailkapen orokorrean. Kimuen mailako neskak ere, hau da alebinak, Bizkaiko txapelkunordeak izan ziren.

Euren entrenatzailea den Lolo García nabarmentzen duenez, "gazte hauek meritu berezia dute. Izan ere,

kontuan hartu behar da Anaitasuna Ikastolako eskola-kiroletik sortutako taldeak direla eta 50.000 biztanle dituzten herrietako kirolkluben aurka lehiatzen direla. Hots, eskola-kirola, kiroltaldeen aurka".

Egun, 70 ikasle koordinatzen ditu Lolok, Alberto Perriaren laguntzarekin, oinarri-kirola deritzanaren barruan. Bere ustez, zaila da umeak -batez ere mutilak-



Ezkerretik hasita: Amaia García, Gladia Afonso, Iraia Bengoetxea eta Maider Mochales kirolariak.

futboleatik aldentzea, "gurasoek seme-futbolaria nahi dutelako. Gainera, penagarria da atletismoan primeran ibil zitekeen gaztetxoak futbolaz gainerako kirolik kontuan ez izatea".

\*Aldizkariko azalean, zutik, ezkerretik eskumara: Olatz Yarza, Gladia Afonso eta Zailoa Pérez. Makurtuta, berriz, Iraia Bengoetxea eta Julene Bouzo.

Dorleta Vidal

Moreno eta Gorritxategi bikain aritu dira jabalina jaurtiketan Kirolari federatuen artean, Arantza Morenoren eta Leire Gorritxategiren markak aipatu behar dira. Martxoaren hasieran, Jaurtiketa Luzeen Txapelketan parte hartu zuen Arantzak, Leonen. 18 urte dituen arren, kategoria absolutuan jardun zuen eta 3. postua lortu ere. Horri esker, AEBtan egingo den Munduko Junior Txapelketarako sailkapena erdietsi du.



Bestalde, Leire Gorritxategi hautatu dute Europako Jubeniletako sailkapenaren aritzeko, maiatzaren 30ean, Azerbayanan. Marka ona lortuz gero, Nanjingen (Txinan) ospatuko diren Jubenilen II. Olinpiar Jokoetan parte hartuko luke.

## Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA

## OUTUMURO

### Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Asteleheneretik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

## Udaberria... eta ni ile hauekin!

**U**daberria hemen da eta, eguzkiaren lehenengo berotasunekin, praka eta mahuka motzak eta, ausartenen artean, lehenengo sandaliak kalean ikusten hasi gara jada... Aizu, eta horretaz ari garela, ea depilatzen garen, bestela leginsak eta mahuka luzeak ezin izango ditugu baztertu. Ni, behintzat, depilatu gabe ez naiz eroso sentitzen.

Erabaki pertsonala da (edo hori behintzat pentsatu nahi dut, bestela non geratzen da nire emakume askearen statusa?). Baina airtortu beharra daukat horretan mutilek inbidia apur bat ematen didatela... Hauek, nahiz eta depilatzeke ohitura izan, praka motzak janzen dituzte euren zangoetako ileen luzerari erreparatu gabe.

Bai, depilazioarena gai arina dirudi, baina orduan zergatik da hain arraroa emakume bat hanka iletsuekin kaletik ikustea? Benetan erabaki pertsonala besterik ez da? Ahalegintzen naiz nire buruari hori sinestarazten, baina nire ustez ez.

Neskak eta mutilak unibertso diferenteetan bizitzeko hezten gaituzte. Txikitatik erakusten zaizkigun jarrerak, interesak, gustuak eta betebeharrak ezberdinak dira. Eta honetan ere ikusten da: emakumeen hanken edo besapeen ileek nazka, usaina, higuina, lotsa, utzikeria, feminismo erradikalaren susmoa eta halako sentazioak eragiten dituzte; mutilenak, berriz, ileak dira, besterik ez.

Printzipioz aukera daukagula ematen du —depilatu edo ez—, baina bigarren honekin besteen



*Alicia Lorenzo*

begiradei edota komentarioei aurre egiteko gai izan behar gara argi dago, eta beti ez gaude prest ezarritako arauari kontra egiteko.

Lortuko dugu depilazioarena benetako aukera pertsonala izatea eta inori axola ez izatea erabakitakoa? Ez dakit nik. XXI. mendean oraindik emakumeen zigoak eztabaida nazionala izaten jarraitzen du. Beraz, gure ileen kontuak itxaron beharko duen susmoa dut.

Ongi etorri udaberria!

**Lortuko dugu depilazioarena  
benetako aukera  
pertsonala izatea?**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**uriarteasesores** ✓

**Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza**

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

**solozabal  
tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos

**LAN BILA**

Mutil arduratsuak bere burua eskaintzen du edozein lan egiteko: etxeko lanak, tailerrak, banaketak, gidari lanak...  
© 631429711. Andrés.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.  
© 672 076 852



Zorionak David (martxoaren 5ean) eta Eder (martxoaren 12an) Ondo pasa familiaren partez!!!



Martxoaren 29an Zorionak Jone. 11musu handi Aitzol eta etxeko guztien partez. Ondo pasa eguna!!!!



Apirilaren 1ean Zorionak Ramon. Musu handi bat Jone, Aitzol eta etxeko guztien partez.



Martxoaren 31n Zorionak! Muxu handi bat etxekoen partez.



Martxoaren 28an Zorionak tia etxeko guztion partez eta musu handi bat.

**Hurrengo zenbakirako azken eguna:**  
**APIRILAREN 11**

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika  
**itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**T**XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK**  
943 030 299

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**MALLABIA  
1954**

Argazki hau 1954 urtean aterata dago Trabaku Goiko aurrien. Angel Zelaieta eta Maria Jesus Mallabia urriaren 30ean ezkondu ziren, aste bete inguru aurretik atera zen argazkia, despedida ospatzen. Bertan agertzen diren denak ez ditugu ezagutu, baina hauek daude besteak beste: Edur Gisasola, Macario Biritxiaga, Eduardo Mallabiabarrena, Juan Bautista Uriarte, Fermin Pagaldai, Pedro Urkidi, Pedro Zubizarreta, Jorge Narbaiza, Jose Astarloa, Inazio Unzueta, Basilio Gallastegi, Jose Mari Basagutxibaskoa, Juan Bilbao Usalola, Gregorio Aranburu, Juan Aranburu, Mateo Amesti, Damian Zelaieta, Antonio Alberdi, Kandido Aranburu, Rufino Arregi, Pedro Agirre, Leon Txurruka, Elias Antxia, Bernardo Sarasua, Benito Abendibar, Bernardo Alberdi, Pako Gisasola, Pedro Totorika, Alejandro Gallastegi, Eugenio Aranburu, Iñaki Aranburu, Patxi Gisasola, Atanasio Unamuno, Jose Mari Gisasola, Benigno Pradera, Juan Aranburu, Bernardo Mendazona, Juan Urkidi, Eustakio Ziarsolo, Felix Pradera, Sebastian Gerenabarrena, Jose Galarza, Pedro Pagaldai, Anastasio Mallabia, Gregorio Aranburu, Bittor Gandiaga, Domingo Mendibe, Antonio Mugarza, Migel Mugarza, Eusebio Arregi, Domingo Landa, Felix Zabala, Eugenio Abendibar, Eliodoro Miñon, Jose Maria Urkidi, Esteban Olalde, Eduardo Gisasola, Elias Elorriaga, Juan Aranburu, Migel Sagastume, Juan Zelaieta, Maria Jesus Mallabia, Matea Gallastegi, Balbina Milikua, Catalina Zelaieta, Valentina Gallastegi, Damian Gisasola, Santos Arregi, Leon Zelaieta, Esteban Onaindia, Julian Onaindia, Jose Totorika, Sebastian Gandiaga, Julian Intxaurraga, Hilario Solozabal, Lazaro Txurruka, Marcelo Mugarza, Primo Aranburu, Jose Zenikazelaia...

**ERMUA  
1969**

Saturnino Urueña "Currito" 1949an iritsi zen Ermura, bere jatorrizko Palentzia atzean lagata. Arrain-saltzaile, tabernari eta Ferrocarriles Vascongadosek langile izan zen, harik eta Ermuan zegoen umeteriari erreparatuta, plaza eta Erdikokale arteko paso estuan 1967an kiosko-txo bat jarri zuenera arte. 19 urte eman zituen bertan, Udalak handik mugitzea erabaki zuenera arte. *Bazoka* txikleak, *Facundo* pipak, *Sugusak*... modako litxarkeriekin, han zeuden nahaste izozkiak, TBOak, jolasteko eta bildumak egiteko kromoak edota jostailu txikiak, denak ere kristal ostetik kei-nuka gozo-gosez urreratzen ginenei. Kinielak zigilatzen zituen

ere, 1x2, gurasoen amets gozoenak aberaste ilusioarekin hauspotuz. Argazkia Miguel Mari Areitioaurtenak atera zuen, argazki-lehiaketa batera aurkeztuz. "Tema urbano" dio atzeko aldean.

**MENDIÖLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

berria!!  
ekainetik aurrera  
**Eibarren** ere

Golenkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065  
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

**Kotxea aparkatzeko txandakako sistemak sei hilabete daramatza martxan.**

**36 txandakako aparkaleku daude –Valdespinako markesa, Probaleku, Diputazioa eta Karabixa kaleetan– eta ordubetez doan aparkatzeko aukera ematen dute, tiketa ipini eta gero.**

**Aruak bete ezean, erabiltzaileek isuna jasotzen dute.**

**Txandakako aparkalekuak erabiltzen dituzu?**

**Sistema hobetu daiteke?**



Nik ez dut erabiltzen, ez baitaukat gidabaimenik. Hala ere, ile-apaindegira datozen Mallabiko bezeroek, adibidez, esaten didate denbora gutxi dela. Ordubetean ez die denborarik ematen gurera etorri edota bestelako erosketak egiteko. Denbora luzatuko nuke.

**Esther García, 51 urte**



Ez dut erabiltzen, garajea dudalako, baina esango nuke komertzialei eta merkatariei mesede egin diela sistema honek. Hala ere, beste ardua batzuk ditut orain: uraren faktura! Ez dago eskubiderik! Inguruko bizilagunek eta Donostiakoek baino askoz gehiago ordaintzen dugu.

**Alfonso Martínez, 56 urte**




Idea ona iruditzen zait. Zubiaurre oinezkoentzako bakarrik da eta, horri esker, umeez arriskurik gabe jolas dezakete. Uste dut eguerdiko tartea ere aproposa dela, baina seinalizazioa eta isunak ordaintzeko bideak hobetuko nituzke. Gainera, inguruko merkatariek denbora gehiagoz aparkatzeko aukera izan beharko lukete.

**Jhorling Flores, 28 urte**



Ez luke martxan egon behar, arazo handiak daudelako aparkatzeko. Sistema hori kendu egingo nuke eta lehenengora bueltatu: Zubiaurrek zabalik egon beharko luke kotxeentzako goizez eta banatzaileei ez oztopatzea zaindu udaltzainek, Eibarren bezala.

**Jose Camacho, 46 urte**



**Tasio eta Sabino**

- Jende asko etortzen da Ermura erosketak egitera. Mallabian ere gauza bera gertatuko da?  
- Bai, bai, bai, jende pila bat...

**ZINEA**

*Setik 7ra*  
*12tik 14ra*  
*19tik 21era*  
*26tik 28ra*  
 Hainbat filme eta ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 3*  
*Hilak 10*  
*Hilak 17*  
*Hilak 24*  
 Hainbat filme.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 6*  
*Hilak 13*  
*Hilak 20*  
*Hilak 27*  
 Hainbat filme.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.

**MUSIKA**

*Hilak 11:*  
 Kontzertua: Coque Malla. 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12€



*Hilak 26:*  
 Ermuan kantuan (Kalejira). 12:30ean.  
 Orbe Kardenalaren plazatik.

**ANTZERKIA**

*Hilak 4:*  
 El intérprete,  
 Asier Etxeandiarekin.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 14€



**DANTZA**



*Hilak 12*  
 Plaza dantza: Txertubi taldea (Euskal Jaia).  
 18:30ean. Orbe Kardenalaren plazan.

*Hilak 13:*  
 Euskal Jaia:  
 Euskal dantzak.  
 12:00etatik aurrera.  
 Orbe Kardenalaren plazan.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK:**

*Hilak 5:*  
 Udaberriko Jaia:  
 Haurrentzako parkea.  
 Goizez eta arratsaldez.  
 Plazan.

*Hilak 5:*  
 Haurrentzako ipuin-kontaketa.  
 17:30ean.  
 Udal liburutegian.

**ERAKUSKETAK**

*Hilaren 16ra arte:*  
 Margoa, bideoa, instalakuntza...:  
 Zaloa Ipiña.



*Hilaren 23tik 15era:*  
 Margoak: Sara Beiztegi eta Juan José Altuna.  
 18:00etatik  
 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

**BESTELAKOAK**

- *Hilak 26:*  
 Gaztela-Leoneko eguna:  
 Dulzaineron kalejirak.  
 11:00etatik.  
 Dulzaineroen topaketa  
 Orbe Kardenalaren plazan. 13:00etan.

Patxi López

**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA**  
**ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Tzikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

**OINAK** LEIRE MAYORA  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 hortz klinika  
**Leire Irazu Garitaonandia**

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behe 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erlaxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea

**Sanatana Dharma**

San Roke 24, behea  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika

Implanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**NATURA**

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

Eskaintzak eta ideiak  
AKÍn hazten dira

# VIVAKI JARDÍN

zure gida berriarekin!



Brikolaje erraza

Precios válidos hasta el 25 de mayo de 2014

## VIVAKI Jardín



desde  
**€0,99**  
Macetas  
pág.60

**¿Pensando  
en pasar  
más tiempo  
en tu jardín?**



Zure lorategia  
mantentzeko eta  
gehiago gozatzeko.  
Eskatu zure dendan  
edo jaitsi hemen:  
aki.es!



Bricolaje fácil

**€24,95**

Toldo VELA  
3,6 x 3,6 m.  
pág.11

**€199**

Set KUBIC  
Mesa y dos sillones con brazos.  
En aluminio y textileno. Con sillones  
encastrables.  
ref. 7004851

